

# Jonan



**RUBEN SÁNCHEZ  
BAKAIKOA**  
EUSKARA IRAKASLEA

**U**rriaren 3an ari naiz testu hau idazten. Lerrok pantailaratzen ari naitzelarik, LABik indarrean darrai. Asteartean esperokoa da bere buruaz beste egingo duela, eta azkenean EAEn ere, Nafarroan eta Iparraldean bezala, anormaltasun normalago baten bidean urrats bat etorkizunera emango duela *euskal gizarteak*.

Eta gauzak horrela, zutabe honetatik, Euskal Herriari (batez ere EAEko zatiari) porra erraldoi batean parte hartu dezan proposatzen diot: zein izango da Jonan Fernándezen hurrengo besaulkia?

Papisten eta negazionisten artean kokatu garen herritar despistatuok, faltan bota dugu azken urte eta erdian osasungintza publikoa indartu, zaindu eta gartzeko eskaera soziala: batzuek edozein neurri (baina batez ere musukoa eta txertoa) jarri dute borrokaren jomuga, beste batzuek edozein neurri men egin eta kritikarik txikiena negazionisten saldora bidaltzeko aitzakia bihurtu dute.

Eta gauzak horrela, Jonan Fernández LABI zientifikoaren koordinatzaile, lehendakariaren aholkulari eta pandemiaren eszena-toki ezberdinak jasotzen

**Euskal Herriari (batez ere EAEko zatiari) porra erraldoi batean parte hartu dezan proposatzen diot: zein izango da Jonan Fernándezen hurrengo besaulkia?**

dituen Biziberri dokumentuaren arduradun izatea egokitu zaigu EAEn. Eta iruditzen zait oso hautagai ona izan dela zinez, LABik izan duen funtziorako.

Izan ere, LABI batez ere birusaren kontrako gerraren propaganda bulegoa izan da. Eta gerran dagoen herri batek ezin du onartu ezkortasunik, etsipenik, zalantzarik. Berdin da zein neurri hartu diren, esan dena lehen eta egin dena

ondoren bi diren edo datuak manipulatuta (behar izan) diren... Hain da luzea zerrenda: (EAEk eskura ez zeuzkanean) test eta musukoen eraginkortasuna hutsaren hurrengotzat jo eta handik hila-bete batzuetara denaren oinarri; txertaketa hasi zenean Espainiar Estatuko komunitate motelena izan eta bigarren dosiarekin estrategia saldu; zahar-etxeen egoera ezkutatu; birusaren kontrako gerraren aitzakian gizartearen kontrol sozio-politiko eta puritanismoa areagotu...

Horregatik, Leitxaran autobidearen kontrako ekintzaile, HBko zinegotzi, Elkarri-Baketik-Gogora-ren arduradun eta lehendakariaren aholkulari izan den Jonan Fernández izan da hautagai egokiena: birusa beharbada ez hainbeste, baina EAEko gizartea ezin hobeki eza-gutzen du. Izan ere, politikarien funtzioa arazoei nola heldu pentsatzea bada ere, ez ote da garrantzitsuagoa gizarteari nola azaldu/saldu asmatzea?

Orain ez dezala euskal gizarteak behar larririk izan Jonanen beharra izateko, hurrengoa besaulki lasaiago bat opa diot. ●

**3. KANPORAKETA**  
**ORTUELLA** **Urriaren 16an, zapatua,**  
**17:00etan, Gorbea aretoan**

Asier Alcedo Cano, Garikoitz Sarrigarte Onaindia,  
Julen Ibaranguelgia Ordorika, Mikel Retolaza Etxebarria,  
Peru Vidal Gurrutxaga eta Txaber Altube Sarionandia.

[www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa](http://www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)

**BIZKAIKO**  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
**2021**






